

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuaren hirugarren ariketaren behin-behineko kalifikazioa, oposizio-fasearen behin-behineko kalifikazioa eta betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko epea irekitzea.

Enpresa sustapeneko teknikari lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesua epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu du abenduaren 18an egindako bileran:

Lehenengoa.- Oposizioaren HIRUGARREN ARIKETAn lortutako behin-behineko kalifikazioa onestea eta jendaurrean jartzea, nahitaezkoa eta ez kanporatzailea eta gehenez ere 10 punturekin baloratutakoa. Zerrenda iragarki honi erantsi zaio.

Bigarrena.- OPOSIZIO-FASEAN GAI izan diren izangaiek lortutako behin-behineko kalifikazioa onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso diren ariketako probak gainditu dituztelako. Zerrenda iragarki honi erantsi zaio.

Hirugarrena.- Kalifikazioaren aurkako erreklamazioak telematikoki aurkeztu ahal izango dira ope@bilbaoekintza.bilbao.eus helbide elektronikora idatziz edo aurrez aurre Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 2. solairua), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era, 3 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hau da, 2023ko abenduaren 22an amaituko da epea.

Laugarrena.- Zerrenda horretan agertzen diren pertsonen **deialdiaren oinarri espezifikoetan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta LEHIAKETA FASEARI dagozkion eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, 3 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea 2023ko abenduaren 22an amaituko da. Betekizunak eta merituak aurrez aurre aurkeztu beharko dira Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kalea 5, 2. solairua, Giza Baliabideen Saila), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.**

Prozesuaren legea diren deialdiaren oinarriekin bat etorriz, gogorarazten da oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduak baino ez direla baloratuko, baldin eta aldeztu aurretik onarpen-eskabidean alegatu badira eta eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, hau da, 2022ko ekainaren 29ra arte.

Bilbon, 2023ko abenduaren 18a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
JOSÉ IGNACIO RISUEÑO SERRANO

Hirugarren ariketaren behin-behineko kalifikazioak

BE2019-0001
ENPRESA SUSTAPENeko TEKNIKARIA
TÉCNICO/A DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total
*89***39	ECHEVARRIA	BILBAO	IMANOL	5,70
*065***5	HORMAECHE	GOROSTIZA	TERESA	6,25

OPOSIZIO-FASEAREN behin-behineko kalifikazioak

BE2019-0001
ENPRESA SUSTAPENeko TEKNIKARIA
TÉCNICO/A DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo ariketa Primer ejercicio	Bigarren ariketa Segundo ejercicio	Hirugarren ariketa Tercer ejercicio	Guztira Total	
*89***39	ECHEVARRIA	BILBAO	IMANOL	16,32	16,70	5,70	38,72	GAI
*065***5	HORMAECHE	GOROSTIZA	TERESA	19,39	19,55	6,25	45,19	GAI